



erramun mendibelandia: *Ea, gure zuloxoa* 2021.

MUSIKEAN

Irailak 23, eguena | Ander Marzana. Pianoa

ESKOLONDON
19:00etan
Aforo Mugatua

EGITARAUA

Sonata Op. 53 "Waldstein" (1804) L. V. Beethoven
(1770-1827)

I. Allegro con brio

II. Introduzione: Adagio molto

III. Rondo: Allegretto moderato - Prestissimo

Sonata-fantasia Op. 19 (1898) A. Scriabin
(1872-1915)

I. Andante

II. Presto

Sonatina para Yvette (1960)..... X. Montsalvatge
(1912-2002)

I. Vivo e spiritoso

II. Moderato molto

III. Allegretto

Ander Marzana Rincones, pianoa:

Natalia Corderorekin hasi zen Andres Isasi musika eskolan eta jarraian Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorioan, Agustin Bergara eta Marta Cara maisuen zuzendaritzapean. Goi mailako ikasketak Miguel Ituarte maisuarekin amaitu zituen 2021ean.

Piano, ganbera-musika eta konposizio lehiaketa ugaritan saritua izan da. Horien artean nabarmentzekoak dira: lehen sariak Euskadiko Musikari Gazteak lehiaketan piano (2015 eta 2016), ganbera-musika (2017) eta konposizio (2018) sailetan, lehen saria XXIX Jacinto Guerrero piano lehiaketa nazionalan (2016), lehen sariak Mozart-Talavera de la Reina lehiaketan, piano (2017) eta konposizio sailetan (2017) eta lehen saria Nazioarteko I. Casio Celviano Grand Hybrid Lehiaketa-Kontzertuan (2019).

2018an, Mendelssohnen 1. kontzertua interpretatu zuen Euskadiko Ikasleen Orkestrarekin (EIO), Jon Malaxetxebarriaren zuzendaritzapean. Orditik aurrera, estatuko eta nazioarteko kontzertu garrantzitsuen zikloetan parte hartzen du; hala nola, Hamabostaldi Musikala (2018 eta 2019), Bilboko Gazte Musikariak (2018 eta 2019), Juan March Fundazioa (2018) eta Donostia Musika (2020). Duela gutxi, bere maisu Miguel Ituarterekin lan egin du Beethovenen Fuga Handia lau eskutara interpretatuz bere 250. urteurreneko zikloetan.

Koordinatzailea: Agustin Bergara



erramun mendibelandia: *Ea, gure zuloetxo* 2021.

MUSIKEAN

Irailak 24, barikua | Jaime Fernandez. Pianoa

ESKOLONDON
19:00etan
Aforo Mugatua

EGITARAUA

Johann Sebastian Bach (1685-1750)

Das wohltemperierte Klavier, BWV 870 eta BWV 888

Joseph Haydn (1732-1809)

Andante con variazioni Hob. XVII: 6

Frédéric Chopin (1810-1849)

Grande Valse Brillante Op. 18

Fantaisie-Impromptu Op. posth. 66

Ballade 1 Op. 23

Maurice Ravel (1875-1937)

Pavane pour une infante défunte

Jaime Fernandez Tejedor, pianoa:

Bilbo 1999. Pianoko gradu profesionala lortu zuen Bilboko Juan Crisostomo Arriaga Kontserbatorioan Agustín Bergara irakaslearekin. Denbora horretan hainbat sari izan zituen.

Hortik aurrera, bere hezkuntza jarraitu du Madrileko Katarina Gurska Eskolan, Yuri Ananiev irakaslearekin, proiektu batzuetan parte hartzen, adibidez, Pragako Ameropa Ganbara Musika Jaialdian.



erramun mendibelandia: *Ea, gure zuloitxo* 2021.

MUSIK EAN

Irailak 25, zapatua

| Trio Sostenuto

Ana Sagastizabal. Sopranoa

Aitor Aburto. Klarinetea

Pedro G. A. Aguinagalderomalde. Pianoa

EGITARAUA

Sechs deutsche Lieder für eine Singstimme, Klarinette und Klavier.....	Louis Spohr
I. Sei still mein Herz	
II. Zwiegesang	
VI. Wach auf	
Schon lacht der holde Frühling, KV. 580.....	Wolfgang Amadeus Mozart
Sonatina for Clarinet and Piano (II.Lento, quasi andante).....	Joseph Horowitz
Le Colibri.....	Ernest Chausson
Morgen.....	Richard Strauss
Der Hirt auf dem Felsen.....	Franz Schubert

Trio Sostenuto, sopranoa, pianoa eta klarinetea :

Hirukotea osatzen duten musikari hauei buruz, musika miresgarria interpretatzen dutela esan dute Donostiako Hamabostaldiko Musika Kritikoek. Kritika bikaina jaso dute baina ez da bakarra izan. Kontzertu arrakastatsuen artean aipagarriak dira Donostiako Orfeoian jo dutena eta baita "Sociedad Bilbaina"n interpretatutakoa.

Ana Sagastizabal Santolaria, sopranoa:

Bilbotar abeslaria, Bilboko Koral Elkartearen hasi zituen musika ikasketak. Londresen antzerki musikalean sakontzen etapa luze bat egon ondoren, 2018an Musikenara sartu zen kantu lirikoaren ikastera. Abeslari bezala hainbat musikal, zarzuela eta operetan lan egin du, eta gaur egun zenbait proiektu eta koroen parte da, hala nola, Joshua Edelmanen "Self portrait" eta bere "Un paseo por la historia del Teatro Musical".

Pedro G.Aguinagaldieromalde, pianoa:

Gasteiz 1999, 5 urte zituela hasi zen pianoarekin . Ikasketak Jesús Guridi eta Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioetan, Agustín Bergara irakaslearekin, egin zituen eta gaur egun Musikenen ikasten du Miguel Ituarterekin. Hainbat sari jaso ditu, hala nola, Jacinto Guerrero eta Euskadiko "Musikari Gazteen" lehiaketetan. Urteetan EGO orkestrako pianista titularra ere izan da.

Aitor Aburto Iracizabal, klarinetea:

Bilbo 1995, Musikenen hasi zituen bere goi mailako interpretazio ikasketak 2017. urtean. Hainbat ganbera-musika taldeetako kidea da eta horiekin parte hartu du hainbat musika-jaialdi eta kontzertuetan. Lehiaketa nazional eta internazionalen saritua ere izan da. JONDE eta EGO orkestren kidea da eta BOS bezalako orkestra profesionalekin kolaborazioak egin ditu, Interpretazio karrerarekin batera. Lehen Hezkuntzan graduatua eta gaur egun C. S. Katarina Gurskan Orkestra Zuzendaritza Masterraren ikaslea da.

Koordinatzailea: Agustín Bergara



erramun mendibelandia: *Ea, gure zulotxoa* 2021.

MUSIKEAN

Irailak 26, domeka | Hari-Laukotea

Borja Mollá. Biolina

Unai Ibañez. Biolina

Karmele Elizaran. Biola

Aitziber Elizaran. Biolontxelo

EGITARRAUA

Cuarteto de Cuerda Op. 1 No 6 en Do mayor (Joseph Haydn)	15'
• Presto assai	
• Menuetto	
• Adagio	
• Menuetto	
• Finale: Allegro	
Divertimento en Fa mayor KV 138 (Wolfgang Amadeus Mozart)	13'
• Allegro	
• Andante	
• Presto	
St. Paul's Suite, Op.29 No.2 (Gustav Holst)	14'
• Jig	
• Ostinato	
• Intermezzo	
• Finale	

Laukote-haria, biolinak, biola eta biolontxelo: Bilboko Behotsik gazte orkestrako partaide dira, Behotsik Orkestra 2011 sortu zuen gazte talde batek. Hamar urte hauetan Euskal Herrian eta kanpoan aritu izan dira, musika klasikoa zein bestelakoa jotzen. Aipatzekoa da Aneuria rap abeslariarekin Bilbao BBK Live jaialdian eman zuten kontzertua, jaialdian parte hartzen zuen lehen orkestra bilakatuz.

Borja Mollá Moral, biolina:

Barakaldo 1991. Musika ikasketak Barakaldoko kontserbatorioan burutu zituen, Isidoro García González irakaslearekin. Euskal Herriko Gazte Orkestrako (EGO) biolin-jotzaile titularra izan zen zazpi urtez eta musika talde desberdinen kolaboratzaile aktiboa, hala nola Deustuko Ganbera Orkestra, Leioako Gazte Orkestra, Monzón Orkestra Sinfonikoa, Camerata Armonici, Lira Numantina Orkestra Sinfonikoa eta Arima Kamerata, azken honetan, sortzaile eta musika zuzendari gisa.

Unai Ibañez Rodríguez, biolina:

Bilbao 1991. Ofizioz arkitektoa, txikitatik musika zaletasuna azaldu eta Erdi Mailako ikasketak burutu zituen Bilboko Koral Elkarteko Kontserbatorioan Saioa Lizaso eta Radu Hamzea iraskasleekin. EuroCamerata nazioarteko gazte orkestrarekin kontzertuak eman ditu Salzburgo, Londres, Paris eta Alemanian.

Karmele Elizaran Zabaleta, biola:

Durango 1995. Musika ikasketak Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskola eta kontserbatorioan egin zituen, biolako Erdi Mailako ikasketak eginin. Biola jotzen orkestra ezberdinetan aritu da hala nola, EIO eta Behotsik orkestretan. Egun, erizaina da.

Aitziber Elizaran Zabaleta, biolontxelo:

Durango 1996. Musika ikasketak Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskola eta kontserbatorioan burutu zituen. Bertan egin zituen biolontxeloko Erdi Mailako ikasketak Gaur egun, Lehen Hezkuntzako irakaslea da. Hala ere, musikarekin jarraitzen du, Durangoko Gehi Zazpi biolontxelo taldean eta Bilboko Behotsik orkestran jotzen baitu.

Koordinatzailea: Agustin Bergara



erramun mendibeldanda: *Ea, gure zuloxoa* 2021.

MUSIKEAN

Irailak 27, astelehena | Javier Alciturri. Pianoa

ESKOLONDON
19:00etan
Aforo Mugatua

EGITARAUA

Ludwig Van Beethoven

Sonata Op. 10 n° 3 en Re Mayor.

- Presto
- Largo e mesto
- Menuetto: Allegro
- Rondo: Allegro

Fryderyk Chopin

Nocturno Op. 9 n° 1 y n° 2.

Fryderyk Chopin

Barcarolle Op. 60.

Maurice Ravel

Une Barque sur L' océan.

Javier Alciturri Belausteguigoitia, pianoa:

Bilbo, 1995. Musika ikasketak Bilboko Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorian hasi zituen, bertan Agustín Bergararen ikaslea izan zen Piano Ikasketa Profesionalak amaitu arte, 2014an. Bartzelonan egin zituen gero Goi Mailako piano ikasketak Conservatori Superior del Liceu kontserbarioan, Josep Colomekin 2014 eta 2018 urte artean.

Gaur egun Bilbon bizi da eta musikaren historian eta musikologia ikerketen ikasketak burutzen ditu. Azken arlo honetan, Errioxako Unibertsitatean Musikologia historikoan Unibertsitate Masterra lortu du, 2021ean. Hasi berri dugun kurtso honetan Musikologia Doktoretza ikasketak hasi ditu Errioxako Unibertsitatean baita ere, Pilar Ramos López Doktoarearen zuzendaritzapean. Gaur egun dituen musikarekiko interesen artean musikologia ikerketa, musika kazetaritza, musikologia-interprete erlazioa, eta irakaskuntza daude.